

Olabide Ikastola. Telf: 945150640. Posta saila 571. 01080 Vitoria-Gasteiz. e-mail: posta@olabide.com

# GURE GAUZAK

# 22

Ikastolako aldizkaria 2003ko abendua



## 40.urteurrena

## OLABIDE IKASTOLA URTEURREN BATEN ESANAHIA

Lau hamarkada nahikoa da balantzea egiteko. Olabide Ikastolaren hasiera ez zen batere erraza izan. Hamalau ikasle hasi ziren, 1963an, Zerkabarren kafeko etxebizitza batean, euskaraz ikasten, klandestinitatean. Inork gutxi gogoratuko du ikastolaren enpresa-izena higiezin agentzia batena zela, izen horren atzean ezkutatzen baitzen gaurko ikastolaren hazia. Garai haietan dena zen zaila.

Gaur egun, Arabako ikastolarik handiena da Olabide. Urteotan gurekin aritu diren 20000 lagun, ikasle, irakasle, langile edo kooperatibako kideen fruitua gara. Berrogei urteotan, gauza izan gara guregana hurbildu diren hogeita mila lagun horiei sinestarazteko erabateko konpromisoa dugula kalitatezko hezkuntza euskalduna eta eleanitzarekin. Eta, halaber, hezkuntza berritzailea da gurea. Europako bizikidetzaren ereduarekin bat datozen printzipioetan oinarritutako hezkuntza, alegia.

Urteurrenaren bidez, ibilbide hau gogorarazi nahi dugu, helburu horiekiko konpromisoa berritu nahi dugu, etorkizuneko lehenetasunak eraiki nahi ditugu. Ezinbestekoa denok laguntzea ibilbideari jarraipena emango badiogu.

*Cuatro décadas son un periodo suficiente para hacer balance. Olabide nació en difíciles circunstancias. En 1963, apenas catorce alumnos y alumnas comenzaron a estudiar en euskera en la clandestinidad, en un piso de la Calle Cercas Bajas. Pocos recuerdan hoy que la primera razón social de esta ikastola fue una sociedad inmobiliaria que servía de tapadera al embrión de lo que hoy somos. Todo era entonces difícil.*

*Hoy Olabide es la mayor ikastola de Alava. Somos fruto del esfuerzo y del trabajo de las cerca de 20.000 personas, que en estos años como alumnos, profesores, profesionales o cooperativistas se han relacionado con nosotros. Hemos sido capaces, en cuarenta años, de hacer creíble un compromiso firme con la formación de calidad, euskaldun y multilingüe. Innovadora. Presidida por los principios del humanismo presentes en el modelo europeo de convivencia.*

*Este aniversario está destinado a recordarnos esta trayectoria, a renovar nuestro compromiso con estos objetivos y construir nuestras prioridades de futuro. La participación de todos es imprescindible para continuar la trayectoria que celebramos.*



## IRRATIA ETA...

Gure ikasleen hezkuntza eleanitzean, eta euskararen kasuan bereziki, ahozkoatasunaren garrantzia kontuan izanik, ikasturte honetan irratigintzaren alorrean lehenengo urratsak ematea erabaki dugu, euskararen normalkuntzan eta eleaniztasunaren proiektuan txertatuz.

Bidea, gauza berri guztien kasuan bezala, ez da erraza izan. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka lortu dugu estudio txikitxo eta dena prest dago jada lehenengo pausotxoak emateko. Momentuz ez dago emititzerik baina denboraren poderioz eta ilusio handiz, irradi ezin hobea gauzatu nahi dugu ikasleak protagonista izanik.

Irrati jaio berri honen izena erabakitzeko dago. Baditugu zenbait proposamen. Dena den, berriren bat bururatzen bazaizue, Komunikatu!

*Dentro de la educación plurilingüe, en el caso del euskara especialmente, y teniendo en cuenta la importancia de la expresión oral, hemos decidido dar los primeros pasos en el mundo radiofónico, insertando este trabajo en nuestro proyecto educativo.*

*El camino, como todas las cosas nuevas, no ha sido fácil. De todas formas, poco a poco hemos logrado montar un pequeño estudio y todo está preparado para comenzar a dar los primeros pasos. Por el momento, no podremos emitir, pero si todo va bien con el tiempo podremos conseguir una verdadera radio teniendo como protagonistas a nuestros alumno/as.*

*Todavía no hemos decidido cuál será el nombre de la nueva radio, aunque tenemos algunas propuestas. Si se os ocurre alguna nueva sugerencia, no dudéis en comunicárnoslo!*



## TELEBISTA

Ezin ukatuzkoa da komunikabideek egun duten eragina gure gizartearengan. Hori dela eta, ikasleak mundu honetara hurbiltzeko aukera sortu zenean ezin izan genion uko egin eta "Canal Gasteiz"ekin bat egin genuen ikasleen partaidetza zuzena eta aktiboa bultzatzen zuen proiektu batean.

Ikasturte honetan saio ezberdinak grabatuko ditugu Ikastola eta honen inguruko gaiak ukituz. Ikasleak eta Olabide izango dira benetakako protagonistak eta lehenengo urratsak emango dituzte telebista munduan.

40.urteurrena ospatzeko, azaroaren 21ean antolatatu zen ekitaldia dela eta, kazetaritza munduan lehendabiziko sarraldia izan zen. Gure kazetari gazteek elkarrizketak egin zituzten ilusio handiz, batzuetan emaitzak ez ziren espero zituztenak izan, baina esperientzia polita, positiboa eta abesgarria izan zen. Hona hemen haiek idatzitakoa:

Azaroak 21ean Ikastolaren festa antolatatu zen 40.urteurrena medio zela, bertan zenbait pertsona, ikasle famatu eta autoritateak zeudelarik. Festa kontzertu batean oinarrituta zegoen, Benito Lertxundirena, hain zuzen ere. Gure kazetari lana pare bat elkarrizketetan zetzan: Juan Zelaia, Izaskun Arrue, Benito Lertxundi, eta kontzertua ikustera joan zen jendea. Benito Lertxundirekin saiakera izan zen besterik eta azkenean ez zigun elkarrizketarik eman. Kazetari lana hain da gogorra eta azkenik fruiturik ematen ez badu.....!

*Es innegable la influencia que los medios de comunicación tienen hoy en nuestra sociedad. Teniendo esto en cuenta, cuando surgió la posibilidad de acercar a nuestros alumnos/as a este mundo no pudimos desperdiciar la ocasión y junto a "Canal Gasteiz" ideamos un proyecto que promueve la participación directa y activa de los alumnos/as en el medio televisivo.*

*Este curso grabaremos diferentes programas que tendrán como tema la Ikastola y su entorno. Los alumnos y Olabide serán los verdaderos protagonistas y darán los primeros pasos en el mundo televisivo.*

*La primera incursión en el entorno periodístico tuvo lugar con motivo de la celebración del concierto 40 aniversario celebrado el 21 de noviembre. Nuestros jóvenes periodistas entrevistaron a los asistentes con gran ilusión, aunque alguna vez los resultados no fueran los que ellos esperaban. De todas formas, la experiencia fue bonita, positiva y enriquecedora. Estas son sus palabras:*

## 40 urte pasa dira

Zer dira 40 urte pertsona batentzat? Bizitza oso bat. Hori da Olabidek duena, bizitza oso bat eta batzuk berarekin hazi gara.

Gure bizitzan hiru atal desberdin daude, baina denak Olabide Ikastolarekin zer ikusi handia dutenak: ikasle izan ginenean, andereño izatera pasatu ginenean eta erabaki genuenean gure seme-alabak ikastola honetan sartzea.

Ikasle ginela gauza asko gogoratzen ditugu: baratza (benetakoa), urdin-gorri (idazteko tresna bakarra), Xabiartxo (ikasteko erabiltzen genuen liburua).. Denok elkar ezagutzen genuen, familia handi bat osatzen baikenuen.

Umeak ginenontzat urte politak ziren haiek, baina gure gurasoentzat urte zailak izan ziren, beraiek bai zirela istorio honetako protagonistak. Ikastolak antolatutako Benito Lertxundiren kontzertuan, azaroak 21ean, emozionatu ginen lehenengo urte horietako argazkiak ikustean, baita gure andereñoak ikustean ere; baina faltan bota genuen izen horiek gogoratzea, lehenengo gurasoenak, beraiek bai izan zirela ausartak. Ez zuten etsi Euskararen bidetik hamaika oztopo aurkitu arren.

Olabideko andereñoak bezala ikuspuntua politagoa da eta gure ustez askoz ere motibagarria, baita nekagarria ere, badakigulako gure gurasoek hasi zutena guk jarraituko dugula.

Eta amak bezala beste konpromiso bat da; ikastolaren jarraipena. Bidea oso luzea da; gauza asko lortu dira. baina beste hainbat lortzeko daude.

Gure eskerrik beroena Gasteizko Euskararen bidean lehenengo harritxoak jarri zituzten guraso haientzat, beraiek gabe, besteak beste, Olabide Ikastolak ez luke gaur egungo mundu honetan tokirik izango.

**ESKERRIK ASKO!**

**Itziar Bedia, Arantxa González eta Andone Ruiz.**

*¿Qué son 40 años en la vida de una persona? Toda una vida. Eso es lo que Olabide tiene, toda una vida, y algunos hemos crecido con ella.*

*En nuestra vida hay tres momentos importantes, todos diferentes, pero todos bastante unidos y muy relacionados con la Ikastola Olabide: cuando fuimos alumnas, cuando pasamos a ser andereños y cuando decidimos mandar a nuestros hijos a esta ikastola.*

*De los años de alumnas recordamos: la "baratza"(huerta), el "urdin-gorri" (único material para escribir), Xabiartxo (el único libro que utilizábamos para estudiar).... Todos nos conocíamos, ya que formábamos una gran familia.*

*Fueron bonitos esos primeros años, para los que fuimos niños entonces, pero para nuestros padres fueron años difíciles, ya que ellos son los auténticos protagonistas de toda esta historia.*

*En el concierto de Benito Lertxundi que la Ikastola organizó el pasado 21 de noviembre, nos emocionamos al ver aquellas fotografías de antaño, así como al ver a nuestras antiguas andereños, aunque echamos en falta un recuerdo a esos primeros padres que fueron muy valientes en su día. No se hundieron a pesar de encontrarse con dificultades varias.*

*Como andereños de Olabide el punto de vista es otro, más bonito a nuestro parecer, más gratificante, aunque también más costoso, ya que tenemos un compromiso que es el de seguir la labor que hicieron nuestros padres.*

*Y como madres, otro compromiso diferente, el que la Ikastola tenga futuro. El camino es largo; se han conseguido, muchas cosas, pero todavía queda mucho por hacer.*

*Nuestra más sincera enhorabuena a todos aquellos padres del principio que pusieron las primeras piedrecillas en el camino del Euskara en Gasteiz. Sin ellos la Ikastola Olabide hoy en día no tendría cabida en este mundo.*



## IZASKUN ARRUE ETA JUAN CELAYA BIZITZA OSOA EUSKARAREN ALDE

### IZASKUN ARRUE: NORTASUN HANDIKO EMAKUMEA

Olabide Ikastolari buruz hitz egiten denean, 40 urte bete izan dituela esaten denean, burura datorkigun lehendabiziko izena Izaskun Arrue da, ikastola honetako lehendabiziko andereñoa eta garai haietako gurasoekin batera euskaltzale amorratua.

Ikastolako kazetari gazteak berarekin egon ziren Olabideren historiaz ikasi eta emakume harigarri honen bizitza ezagutzeko asmoz.

Ezin da ukatu emakume honek duen nortasun handia, hori begi bistan dago. Bai lanean bai bizitzan sortzen diren arazoei beti aurre egin dien emakume gogorra.

Gipuzkoan jaioa, Gasteizera etorri zen ezkondu zenean. Magisteritza eta Erizaintza ikasi

zituenez, Gasteizen euskara irakastearen erronka bere gain hartu zuen. Eta 14 umerekin batera bere etxeko gela txiki batean Arabako lehendabiziko ikastolaren historiari hasiera eman zion. Euskaltzaleentzat urte latzak eta zailak izan arren, momentu zoriontsu ugari bizi izan zituen.

Urteak pasa ahala, ikasle talde txiki hau handitzen joan zen, andereño gehiago eta koka-gune berriak. 70. hamarkadan Lasarten hasi ziren, ikastola berrian. Honekin batera euskara batuaren ezarpena etorri zen. Izaskun Arrue ez zegoen ados hartutako erabakiarekin eta min handiz Ikastola utzi zuen erizaintzan hasteko. Halere, euskaltzale-tasunaren bidean jarraitu zuen.




### JUAN CELAYA: GIZONA ETA EUSKALDUNA GAUZA GUZTIEN GAINETIK

Euskal kultura ezagutzen duen edonorentzat Juan Celayaren izena ez da izango inolaz ere ezezaguna. Oñatiar honek euskararen alde egindako hamaika ekimen ezin baitira ahaztu. Horien artean Olabide Ikastolari eman zion laguntza.

Hori dela eta, gure kazetariak elkarrizketa polit bat egin zioten. Bertan, bizitzaren inguruan duen ikuspuntua adierazi zигun. 80 urte bete baditu ere, ez daki geldirik egoten eta begiradan ikusten zaion indarra ez da oharkabean pasatzen. Halere, hobe da berak botatako hitzak zuek irakurtzea.

Euskal kulturarekin lotuta beste zenbait proiektutan parte hartu duzu?

*"Laguntza eman ahal badut emango dut bizitza guztirako, zeren nire izatia ez da izan nere ekintza fabriketan. Ni lehenengo naiz gizona, euskalduna, eta nere fabrika kontuak baino lehenengo dago gizontasuna. Eta hor nabil sortu naizenetik; Euskal Herria ondo ikustea, aurrera eramatea. Hori dana nere inguruko fabrika diru kontuak baino, hori dala neure buruan dabilena."*







# HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

## AHOTSUREN ETORRERA HAUR HEZKUNTZARA

Urriaren 22an, Haur hezkuntzako pasabide eta gelatan bisita izan genuen, AHOTSU, Olabideko maskota dena euskararen motibaziorako egindako lanagatik gu animatzera etorri zen, bestalde aurten ikasle berriak ditugun horiei bere burua aurkezteko ere aukera izan zuen Ahotsu berak.

*El miércoles, 22 de octubre tuvimos una inesperada visita en las clases de Educación infantil, AHOTSU la mascota encargada de motivar a nuestros/as alumnos/as en la utilización del euskara nos vino a visitar. Nos felicitó por el trabajo realizado animándonos a continuar de la misma manera y por otra parte tuvo la oportunidad de presentarse ante los más pequeños que este septiembre comenzaron en la Ikastola*

## HH6 IKASLEAK ERRIOXARA

Urtero bezala, HH6 mailako ikasleak Errioxara abiatu ziren, Laguardia herrira hain zuzen ere, bertan udazkeneko ezaugarriak behatzeaz gain, mahats biltze eta ardo egite prozesuak ikusi eta bizitzeko parada izan zuten, eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, eguna aparta izan zen gure umeentzat, bide batez Laguardiako herria ikusiaz batera bertan bazkaldu baitzuten beraien otartekoak.

*Como cada año y con la llegada del otoño los alumnos/as de 6º de El se desplazaron hasta la localidad riojana de Laguardia con el objetivo de ver y participar in situ de los procesos de vendimia y elaboración del vino, así como de observar las características de la estación en la que acabábamos de entrar. Si bien el día no acompañó demasiado los pequeños lo pasaron estupendamente teniendo la ocasión de comer y visitar el pueblo de Laguardia.*

## HH3 MAILAKO IKASLEAK UDAZKENAZ GOZATZEN

Ikastolaren ingurua aztertzen aritu ziren HH3 mailako bi urteko ume berriak, udazkena da, hostoak zuhaitzetatik erortzen dira, kolore bereziak ditugu hemen, marroiak, horixkak, gorriak. Goaz gozatzerara.

*En el entorno de la ikastola, los niños/as de 3º de El de dos años aprovechamos la ocasión para disfrutar del otoño, los colores, rojizos, amarillos, marrones, las hojas que caen de los árboles. A disfrutar.*



## KAIXO LEHEN HEZKUNTZATIK

Trimestre honetan gauza asko egin dugu:

2.mailakoak Biasterin egon gara txoriak ikusten eta oso ondo pasatu genuen.

4.mailakoek, UNICEFek antolatu zuen elkartasunerako igeriketan parte hartu genuen.

5. eta 6. mailakoek Bihotz Osasuntsu kanpaina parte hartu dugu eta gosari arrarua hartu genuen, OLIOA ogiarekin.

4. eta 6. mailakoak Barriara joan ginen eta hain ondo pasatu genuenez ez genuen Ikastolara itzuli nahi.

Urtero bezala dantza saioak, zinema euskaraz, antzerkiak, bertso saioak, kontzertuak izan ditugu.

Hurrengo trimestrean gauza gehiago kontatuko dizuegu.

**Agur!**



# DBH ETA BATXILER

## DBH 2 antzerkira

DBH 2. mailako ikasleak, Lengua eta literatura mintegiak antolaturik, antzerkira joan ziren azaroan. "Amor de Don Perlimplín con Belisa en su jardín". (García Lorca) izenburua zuen antzezlanaren ikusteko aukera izan zuten, baita aktorea famatuak (Loli Astoreka) ezagutzeko ere.

*Los alumnos/as de 2º de ESO realizaron una salida especial organizada por el Departamento de Lengua y Literatura. Tuvieron la oportunidad de presenciar la obra de García Lorca, "Amor de Don Perlimplín con Belisa en su jardín." Incluso vieron actuar a alguna actriz famosa (Loli Astoreka)*

## DBH 3 Butron

DBH 3. mailakoek eta euren tutoreek egun bateko txango dibertigarria egin zuten elkarren arteko harremankak sendotzeko. Bertan kirol ezberdinak praktikatu zituzten. Eguraldia oso atsegina izan ez arren, ondo pasatu zuten elkarrekin.

*Los alumnos/as de 3º de ESO y sus tutores prepararon una divertida salida para lograr un mayor grado de relación personal y empezar el nuevo curso. Practicaron diferentes deportes y aunque el tiempo no acompañó lo pasaron realmente bien.*

## DBH 4 katedralera

DBH 4 mailako ikasleak Santa María katedralaren birmoldaketa sakonki ezagutzeko antolatzen den bisita gidatua egitera joan ziren. Bertan, fundazioaren gideen laguntzaz, egiten ari diren lanak ikusi zituzten.

*Los alumnos/as de 4º de ESO visitaron la catedral de Santa María. Allí, con ayuda de los guías de la fundación tuvieron la oportunidad de contemplar los trabajos que se están realizando con motivo de la restauración.*

## DBH 4 Tubos Reunidos

Teknologia mintegiak antolatu zuen bisita dela eta, DBH 4. mailako ikasleak TUBOS REUNIDOS enpresa ikustera joan ziren. Amurrion kokatuta dagoen enpresa honek soldadurarik gabeko tuboetan oinarritzen du bere lana.

*Los alumnos/as de 4º de ESO visitaron la empresa TUBOS REUNIDOS. Esta empresa situada en Amurrio se dedica a la fabricación de tubos sin soldadura.*

## Batxiler 1 legebiltzarra

Bat. 1Dko ikasleak legebiltzarrean egon ziren honen barruko funtzionamendua ezagutzeko asmoz. Era berean, epaitegietara hurbildu ziren benetako epaiketa bat hurbeietik ikusteko.

*Los alumnos/as de 1º de Bachiller realizaron una visita al Parlamento para conocer su funcionamiento interno. De la misma forma, visitaron los juzgados y tuvieron la oportunidad de poder observar de cerca la celebración de un juicio.*

## Gasteiztxo

BAT. 2. mailako ikasleek Gasteizko Udalak antolaturiko telebista tailer batean parte hartu zuten. Grabatu, editatu eta teleberria egin, hauek izan ziren haien eginkizunak.

*Los alumnos/as de 2º de Bachiller tomaron parte en un taller de televisión organizado por el Ayuntamiento de Gasteiz. Grabar, editar y emitir un telediario, éstos fueron sus cometidos.*

## DBH 2 LHra

Euskara mintegitik bultzatuta, DBH 2. mailako ikasleek, LHko ikasleei bisita berezi bat egin zieten, nagusiek prestatutako narrazioak besteei kontatzeko asmoz.

*Los alumnos/as de 2º de ESO hicieron una visita especial a los alumnos/as de Primaria, para leer las narraciones que los mayores habían trabajado en clase*

## DBH 2 BILIN BOLON

DBH 2. mailakoek Radio Euskadiko Bilin Bolon saioan hartu zuten parte irrati saio bat grabatuz.

*Los alumnos/as de 2º de ESO tomaron parte en la grabación del programa Bilin Bolon de Radio Euskadi*

## OLABIDE KIROL ELKARTEA

Dagoeneko beste ikasturte bat martxan dago eta nola ez, horrekin batera umeeek hain gustokoak dituzten eskolaz kanpoko kirol ekintzak ere, bere entrenamendu, saio, topaketa eta txapelketekin.

Zuetariko askok jakingo duzuen bezala, aurten kirol elkarteak aldaketa oso garrantzitsu eta onurgarria izan du: bere izaera aldatu egin du, klub batetik kirol elkarte batera izatera pasatuz, Olabide Ikastolaren mendean geratzen delarik. Honela Olabide Kirol Elkarteak Ikastolak dituen baliabide guztietaz aprobetxatu ahal izango da eta Ikastola eta Kirol Elkartearen arteko loturak indartuko dira, koordinazio hobea lortuz eta ondorioz, kirol ekintzetan eskeintzen den kalitatea hobetuz.

Aldaketa hauek entitatearen izenean bere eragina ere izan dute, eta kirol arloko indarreko legea dela eta, kirol elkarteak duen izen ofiziala Lasarteko Olabide Ikastolaren Kirol Elkarteak da. Dena dela, familiarragoa den Olabide Kirol Elkarteak hartuko dugu gure artean erabiltzeko eta gure taldeei izena emateko.

744 dira kurtso honetan kirol elkarteak dauzkan 14 kirol diziplinaren bat egiten duten ikasleek. Esan beharra dugu ikasturte honetan hainbeste urtetan zehar egindako atlestimo, boleibol eta hokeiko talderik ez dela sortu, baina ez dugu amorerik emango eta hurrengo ikasturterako gure ahaleginak kirol hauek berreskuratzeko bideratuko ditugu.

744 lagun, eta hori kontatu gabe basabideko ekintzara apuntatuta dauden 141 familiak. Hilabetearen behin, igande goizeetan, Arabako hainbat mendi ezagutzera goaz eta ez bakarrik hori, kidesun eta alaitasun beteriko goiz familiar batzuk pasatzera ere, pasa den ekainean ikasturteko irteerei amaiera emateko Gorbeako Gurutzean aterako argazkiak demostratzen duen bezala.

Besterik gabe, agur bero bat.

Ya está en marcha un nuevo curso y junto a éste, cómo no, las tan ansiadas actividades extraescolares deportivas, con sus entrenamientos, sesiones, encuentros y competiciones.

Como muchos de vosotros ya sabréis, la agrupación deportiva ha sufrido un importante y beneficioso cambio: ha modificado su forma de ser, pasando de ser un club deportivo a una agrupación deportiva dependiente de Olabide Ikastola. De esta forma, Olabide Kirol Elkarteak se podrá beneficiar de todos los recursos de la Ikastola y se reforzarán los lazos entre la Ikastola y la agrupación deportiva, logrando una mejor coordinación y en consecuencia, una mejor calidad de las actividades deportivas ofertadas.

Estos cambios han tenido también su repercusión en el nombre de la entidad y debido a la legislación vigente en materia deportiva, el nombre oficial de la agrupación deportiva es Lasarteko Olabide Ikastolaren Kirol Elkarteak. De todos modos, utilizaremos el más familiar Olabide Kirol Elkarteak para comunicarnos entre nosotros y para dar nombre a nuestros equipos.

Son 744 los alumnos que durante este curso realizan alguna de las 14 disciplinas deportivas que se llevan a cabo en Olabide Kirol Elkarteak. Hay que decir que este curso no hemos podido conseguir sacar grupos de atletismo, voleibol y hockey, deportes que durante tantos años han tenido su espacio. No por esto nos rendimos, y dirigiremos gran parte de nuestros esfuerzos en recuperar estos deportes para el próximo curso.

44 participantes, y eso sin contar las 141 familias apuntadas a la actividad de senderismo. Un mañana de domingo al mes, vamos a conocer algún monte de Álava y no sólo eso, sino también a disfrutar de una mañana familiar llena de compañerismo y alegría, como bien demuestra la foto tomada en la Cruz del Gorbea en junio pasado como colofón a las salidas del curso pasado.

Sin otro particular, recibid un saludo.



Urtero bezala lan ta lan jarraitzen dugu gure ikasle eta nagusiekin batera. Ikusiko zenuten bezala gure abesbatzakoek 40. Urteurrena ospatzeko izan genuen ekitaldian Benito Lertxundirekin kantatzeko aukera izan zuten.

Bestalde abenduaren 14ean kontzertu bat eskeiniko digute PAGANOSen eta ohi den bezala gure Kultur Elkarateak Gasteizko Olentzeroan parte hartuko du.

Azkenik ikastolako zenbait gauza salgai ditugula adieraztea: ikastolako egutegia, arkatzak eta boligrafoak, AHOTSUren polarrak eta kamisetak... Bateon batek nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezte.

Un curso más hemos comenzado a tope con nuestros/as alumnos/as y adultos. Como ya escucharíais en el concierto de la celebración del 40 Aniversario de la ikastola, nuestro coro tuvo la oportunidad de cantar con Benito Lertxundi.

Por otro lado, el coro ofrecerá un concierto el próximo 14 de diciembre en PÁGANOS y como ya es costumbre participaremos en el Olentzero de Vitoria-Gasteiz.

Por último, comunicaros que tenemos varias cosillas en venta: calendario de la ikastola, lápices y bolígrafos, polares y camisetas de AHOTSU... Si alguien está interesado/a que se ponga en contacto con nosotros.



## NAZIO ARTEKO EUSKARAREN EGUNA: NIREKIN EUSKARAZI!

Abenduaren 3an Nazio Arteko Euskararen eguna ospatu zen eta guk, noski, Ikastolan gauza bera egin nahi izan genuen. Horretarako zenbait ekintza antolatu genituen, egun berezi honek merezi duen moduan ospatzeko.

HHn euskarazko web batzuen berri eman zen aretoan. Era berean, abestiak eta ipuinak ere kantatu eta irakurtzeko aukera izan zuten ikasleek.

LHn Ahotsu jolasean ibili zen. Sokatira, zapia eta joku tradizioaletan ariru ginen.

DBH/DBHOn. Ezaguna den *Nirekin euskaraz kan-*

paina antolatu genuen. Ikasleek euskara erabiltzearen konpromisoa hartu behar zuten pegatina bat eramanik. Goiza Artzeren poema famatuarekin hasi genuen.

Ekintza formala arratsaldean ospatu zen. 40.urteurrenaren ospakizunen artean, Miren Azkaratek, Kultur sailburuak, **Euskara Plazara** idazki instituzionala irakurri zuen. Bertan, euskara bultzatzeko eta erabiltzeko eskatzen digu herritar guztioi:

*“Aurrerantzean ere, hemen bizi garenon arreta, ardura, atxikimendua eta elkarlana beharrezkoak ditugu.”*



## GURE TXOKOA

## MALKOEN SUTEA

Ez dut pentsatu nahi,  
gure maitasuna oroitzapen bilakatuko den egunean  
baina amodio istorio guztiek  
omen dute amaiera  
eta guk ere itzaliak ditugu jadanik  
azken zigarrokinak negar malkotan

Lucky zaporeko musuak  
eta ke arteko begiradak  
ez ditut sekula botako  
zirrarak merezi ez duen amildegira.

Gaur ere burumakur eskegi dut  
aspaldian egunkaria dirudien telefonoa  
berri txarrak besterik ez zizkidan ekartzen.  
telefonoaren haria lepoen inguratuta  
suizidatu nahiko nuke  
edo garagardo katxi baten barruan itota.  
Baina ezinezkoa zait azken hau  
tabernariak edalontziak  
malkoz betetzen dituztenik

Idoia Orbea  
DBH 3E



ZORIONAK  
URTE BERRI ON!

